

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

114/2019 Foru Agindua, maiatzaren 10ekoa, interes publikoa aitortzen diona Zuhatzuko 105-106 zenbakietan, Gasteizko udalerriko lurzoru urbanizaezinean, dauden aldagelen eraikinak eraberritzeko proiektuari, zeina Deportivo Alavés SAD entitateak sustatu baituen

Deportivo Alavés SAD entitateak Gasteizko Udalari obra lizentzia eskatu zion Zuhatzuko 105-106 zenbakietako aldagelen eraikinen eraberritzea legezatzeko.

Gasteizko Udalak espedientea bidali zuen, eta eskatu zuen izapidetu zedila proiektuaren interes publikoaren aitortpena, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen zati da eraberritzearen proiektu teknikoa eta Udaleko Hirigintza Kudeaketaren buruak igorritako txostena, zeinetan adierazten baita partzela lurzoru urbanizaezinean dagoela eta nekazaritza balioko eremu kalifikazioa (AV-AG) duela, udalerrian indarrean dagoen HAPOan aurreikusitakoaren arabera, eta, Nekazaritzako eta Basoetako LPSaren arabera, baso-mendi barban kategoriakoa dela.

2019ko apirilaren 3an, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak idazkia igorri zion Gasteizko Udalari eta honako hau adierazi:

“(…) Kasu honetan, Gasteizko Udalak du hirigintza lizentzia emateko eskumena, bai eta kirol ekipamenduko sistema orokor pribatu bat mugatzeko plan berezi bat edota plan orokorraren aldaketa bat idazteko eta onesteko beharra adieraztekoa ere.

Horrenbestez, Gasteizko Udalak beharrezkotzat jotzen badu plan berezi bat idaztea eta onestea, behin hasierako onespren erabakia hartzen duenean, espedientea Arabako Foru Aldundiari igorriko dio, interes publikoa aitortzeko plan horretan jasotako esku hartzei.

Fede on, efikazia eta efizientzia printzipion ondorio den erakundearteko leialtasun printzipioa dela eta, administrazio publikoek honako hauek bete behar dituzte esku hartzen dutenean:

- Beste administrazio batzuek haien eskumenak legez baliatzea errespetatzea.
- Beren eskumenak baliatzean interes publikoa lehenestea.
- Gainerako administrazio publikoei behar duten informazioa ematea.
- Gainerako administrazio publikoekin elkarlanean aritzea eta haiei laguntzea.

Horregatik guztiagatik, Gasteizko Udalari eskatzen zaio, hamar egun balioduneko epean, atzera egin dezala plan berezi bat idatzi eta onetsi ahal izateko interes publikoa aitortzeko eskaeran, edo eska dezala interes publikoa aitortzeko hasitako espedientea baliogabetu dadila, eta, horretarako, udal zerbitzuen txosten arrazoitua erantsi beharko du, zeinetan ondorioztatu beharko baiten ez dela beharrezkoa plan berezi bat edo HAPOaren aldaketa puntual bat idatzi eta onestea”

Horretarako emandako epea pasata, ez da igorritako helarazpenaren Gasteizko Udalaren erantzun idazkirik jaso.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Otsailaren 8ko 30/2019 Foru Aginduaren bitartez, hasierako onspena eman zitzaion interes publikoa aitortzeko espedienteari eta jendaurrean jarri zen 20 egunez, ALHAOn argitaratu zenetik hasita. ALHAOn 2019ko otsailaren 20an argitaratu zen (22. zk.). Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Espediente hau abiarazi duen proiektuaren xedea da kirola egiteko eta sustatzeko instalazio bat, eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak 2.1 artikuluan honako hau xedatzen du: "Kirola interes publikoko gizarte jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria."

Agerikoa da legeak proiektua baimentzeko eskatzen duen interes publikoa izan badela, eta azpiegituraren berezko ezaugarriengatik kokatu beharra dago landa eremuan.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikoa aitortzea Zuhatzuko 105-106 zenbakietan dauden aldagelen eraikinak eraberritzeko proiektuari, zeina Deportivo Alavés SAD entitateak sustatu baituen eta Gasteizko Udalak izapidetu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago aginduzko udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere. Halaber, aitorten honek ez du kentzen plan berezi bat edo plan orokorraren aldaketa bat idatzi eta onesteko betebeharra 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriak hartzeari buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan, ez eta Arabako Foru Aldundiak, erabaki bidez, plan berezi edo aldaketa puntual horretan jasotako esku hartzeak interes publikokotzat aitortzeko beharra ere.

Hirugarrena. Interes publikoa adierazteak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsua.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 10a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO